

Ocio Cultural Universitario / Kultur Aisia Unibertsitatean

Basauri

2º Semestre /2. Seihilekoa 2023/2024

Presentación

El Programa **Ocio Cultural Universitario** se pone en marcha en 1993 con la finalidad de promover un ocio humanista en el entorno, defendiendo la idea de la formación como ocio y de éste como desarrollo personal y social. Desde entonces este programa se ha propuesto ampliar el horizonte cultural, descubrir valores y buscar en el ocio nuevos cauces de realización personal para aquellos ciudadanos y ciudadanas que en él participan.

Ocio Cultural Universitario es un programa de formación abierto, dirigido a toda persona con inquietud cultural, de cualquier edad y sin la exigencia de un título previo.

Ocio Cultural Universitario ofrece en la actualidad cursos de quince horas de duración que abarcan una gran diversidad de temas en las áreas de arte, literatura, historia, filosofía, salud, música u otros ámbitos de interés cultural y social.

DeustoBide - Escuela de Ciudadanía
Universidad de Deusto

Kultur Aisia Unibertsitatean 2023-2024

Aurkezpena

Kultur Aisia Unibertsitatean programa 1993an jarri zen martxan, inguruan aisia humanista sustatzeko, prestakuntza aisia mota bat zela eta garapen pertsonal eta sozialerako zela defenditzeko. Harrezkero, gure programa honen asmoa izan da kultura-mugak zabaltzea, balioak zein diren aztertzea eta pertsona moduan hazteko bide berriak urratzea, aisia arloan parte hartzen duten guztientzat.

Kultur Aisia Unibertsitatean prestakuntza programa irekia da, kulturagatiko kezka sentitzen duten guztientzat, adina edozein dela ere, eta aurretiazko titulurik behar izan gabe.

Kultur Aisia Unibertsitatean programak hamabost orduko iraupena duten ikastaroak eskaintzen ditu gaur egun, era guztietako gaien ingurukoak: artean, literaturan, historian, filosofian, osasunean, musikan eta kulturean eta gizartearen interesak sortzen duten beste arlo batzuetakoak.

DeustoBide - Herritartasun Eskola
Deustuko Unibertsitatea

Los grandes compositores. Un viaje por Europa a través de la música clásica

Profesora: Mercedes Albaina

Doctora en Ocio y Desarrollo Humano, Titulada Superior en Música y Licenciada en Psicología. Profesora titular de Educación Auditiva en el Centro Superior de Música del País Vasco-Musikene, colabora con el Instituto de Estudios de Ocio desde 1996 en varios de sus programas. Contribuye a la divulgación de la Música a través de conferencias, escritos y proyectos didácticos a petición de diversas orquestas y fundaciones. Colabora con el mismo fin con el programa La galería de Radio Euskadi en el espacio "los colores de la música".

En este curso haremos un recorrido por la obra de determinados compositores y descubriremos la estrecha relación de ésta con las características personales de cada uno de ellos. La época que les tocó vivir, las ciudades donde realizaron su trabajo -con sus características socioculturales, políticas y religiosas- y las circunstancias particulares que marcaron sus vidas, determinaron en gran medida su estilo.

Nos acercaremos a varios de los grandes para, a través de sus composiciones, asomarnos a una Europa cambiante a lo largo del tiempo. Bach, Haendel, Mozart, Beethoven, Schubert, Chopin, Tchaikovsky, Debussy y Ravel pondrán la banda sonora a este periplo que finalizará en casa con Usandizaga, de modo que podamos apreciar también el valor de nuestro patrimonio musical y las razones de nuestro amor por la música.

Horario: lunes, de 17:00 a 18:30

Calendario: marzo: 4, 11 y 18; abril: 8, 15 y 22; mayo: 6, 13, 20 y 27.

Idioma: castellano

Konpositore handiak. Bidaia Europan zehar, musika klasikoaren bidez

Irakaslea: Mercedes Albaina

Aisia eta giza garapeneko doktorea, Musikako goi tituluduna eta Psikologian lizentziatua. Musikeneko (Euskal Herriko goi mailako musika ikastegia) Entzumen Hezkuntzako irakasle titularra. Aisiako Ikaskuntzen Institutuan laguntzen du 1996tik hainbat programatan. Musika zabalikundean laguntzen du hitzaldi, idazki eta proiektu didaktikoen bidez, orkestrek eta fundazioek hala eskatuta. Radio Euskadiko «La galería» programan laguntzen du helburu berberarekin, «Los colores de la música» saioan.

Ikastaro honetan, konpositore jakin batzuen obretan barrena ibiliko gara, eta lanek bakoitzaren ezaugarri pertsonalekin duten lotura estua ezagutuko dugu. Bizitzeko egokitu zitzaizkien garaiak, lan egin zuten hiriek —ezaugarri soziokultural, politiko eta erlijiosoekin— eta beren bizitzak markatu zituzten zirkunstantzia bereziek, neurri handi batean, beren estiloa markatu zuten.

Musikari handienetako batzuetara hurbilduko gara, eta, beren konposizioen bidez, denboran zehar aldatzen ari den Europara «kuku» egingo dugu. Bach, Haendel, Mozart, Beethoven, Schubert, Chopin, Tchaikovsky, Debussy eta Ravel musikari handiek jarriko dute soinu banda, Usandizagarekin etxean amaituko den bidaia honetan, gure musika-ondarearen balioa eta musikarekiko maitasunaren arrazoiak ere ikusi ahal izateko.

Ordutegia: astelehenetan, 17:00etatik 18:30era

Egutegia: martxoak 4, 11 eta 18; apirilak 8, 15 eta 22; maiatzak 6, 13, 20 eta 27.

Hizkuntza: gaztelania

Trasfondo y actualidad del conflicto Palestino-israelí: perspectivas globales

Profesora: Susana Mangana

Cursó sus estudios de doctorado en estudios árabes e islámicos en la Universidad Autónoma de Madrid, posee también un Máster en Administración y Dirección de Empresas (MBA por la Univ. Pontificia de Comillas, Madrid). Máster en Comercio Exterior e Integración (Instituto de la Integración de Montevideo) y una Doble licenciatura en Economía y Filología Árabe (SOAS, Universidad de Londres).

Este curso aborda el desarrollo histórico del conflicto entre los países árabes e Israel, desde sus orígenes hasta la actualidad, con énfasis en la guerra en curso entre Hamas e Israel. Explicaremos las distintas interpretaciones del pasado y del presente del conflicto y exploraremos diversas perspectivas de los actores involucrados, tanto regionales (Irán, Turquía) como potencias occidentales (EE. UU., Reino Unido, UE), analizando sus roles y motivaciones. Se examinará la posición de las Naciones Unidas y se abordarán las complejidades de este conflicto desde una mirada centrada en los derechos humanos. Además, se discutirán los desafíos futuros y la repercusión en Occidente, ofreciendo una comprensión integral de esta problemática. El curso trata de desentrañar las complejidades y explorar posibles soluciones en un contexto global.

Horario: miércoles, de 17:00 a 18:30

Calendario: marzo: 6, 13 y 20; abril: 10, 17 y 24; mayo: 8, 15, 22 y 29.

Idioma: castellano

Palestinarren eta israeldarren arteko gatazkaren funtsa eta gaurkotasuna: ikuspegi globalak

Irakaslea: Susana Mangana

Arabiar eta islamiar ikaskuntzetako doktoregoko ikasketak egin zituen Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Masterra ere badu (MBA, Comillas Unibertsitate Pontifikalean, Madrilen). Kanpoko Merkataritza eta Integrazioko Masterra (Montevideoko Instituto de Integración-en) eta Ekonomia eta Arabiar Filologiako lizentziatura bikoitza (SOAS, Londreseko Unibertsitatea).

Ikastaro honek herrialde arabiarren eta Israelen arteko gatazkaren garapen historikoa jorratuko du, jatorritik hasi eta gaur egunera arte, Hamasen eta Israelen artean une honetan dagoen gerra azpimarratuz. Gatazkaren iraganeko eta egungo interpretazioak azalduko ditugu, eta tartean dauden eragileen hainbat ikuspegi aztertuko ditugu, bai eskualdeetakoena (Iran, Turkia), bai mendebaldeko potentzienak (AEB, Erresuma Batua, EB), bakoitzaren rola eta motibazioak aintzat hartuta. Nazio Batuen jarrera aztertuko da eta gatazka horren konplexutasunak ere jorratuko dira, giza eskubideak ardatz harturik. Gainera, etorkizuneko erronkak eta Mendebaldean izango duen eragina ere eztabaidatuko dira, arazoaren nondik-norakoak osorik ulertzeko moduan. Ikastaroaren asmoa bikoitza da: egoeraren alderdi konplexuak argitzea eta testuinguru globalean egon daitezkeen irtenbideak aztertzea.

Ordutegia: asteazkenetan, 17:00etatik 18:30era

Egutegia: martxoak 6, 13 eta 20; apirilak 10, 17 eta 24; maiatzak 8, 15, 22 eta 29.

Hizkuntza: gaztelania

Procedimiento de inscripción

El número de plazas es limitado (máximo 63) teniendo preferencia los empadronados en Basauri. Se abrirá un periodo de pre-inscripción del **1 al 18 de febrero**. Es obligatorio facilitar un número de cuenta al rellenar la solicitud. Sin él no se tomará parte en el sorteo. En el caso de que el número de inscritos para esta fecha sea superior a 63, se realizará un sorteo el día **20 de febrero**, cuyo resultado, sea positivo o negativo, enviaremos exclusivamente por e-mail (quien no lo proporcione, deberá llamar o acercarse por las oficinas). Del resultado del sorteo también se obtendrá una lista de espera con aquellas personas que no hayan obtenido plaza. La persona que obtenga plaza tiene de plazo del **22 al 23 de febrero** para renunciar expresamente a la misma. En caso contrario se procederá al cobro mediante cargo a cuenta, pasándose el recibo el **1 de marzo**.

La inscripción se realizará on-line. En la página www.basauri.net, se habilitará un formulario on-line preparado al efecto. Solamente se trata de rellenarlo y enviarlo y el solicitante ya queda pre-inscrito. Si esto no fuera posible, se podrá entregar el impreso de inscripción debidamente cumplimentado en la oficina SAC-Registro del Ayuntamiento de Basauri (es necesario solicitar cita previa en el siguiente enlace: <https://sede.basauri.eus/es/citaprevia>, o bien enviándolo por correo a la siguiente dirección. El envío deberá llegar antes del cierre de la inscripción, si no es así la solicitud será desestimada:

Ayuntamiento de Basauri (SAC)
Kareaga Goikoa, 52. 48970 Basauri

Precio

El precio del curso es de 40 euros para los empadronados en Basauri y de 55 euros para los no empadronados.

Para más información llamar a los teléfonos:

944 66 63 11 (Ayuntamiento de Basauri) - 944 13 90 75 (Universidad de Deusto)

Lugar de realización de los cursos

Centro Cívico Basozelai
Basozelai, 11 - 48970 Basauri

Izen-emateko prozedura

Leku kopurua mugatua da (gehienez, 63 pertsona), eta lehentasuna izango dute Basaurin erroldatuta daudenak. Izena emateko epea zabalik **egongo da otsailaren 1etatik 18ra bitartean**. Eskabidea betetzean, kontu zenbakia eman beharko da: zenbakirik eman ezean, ez da zozketan parte hartuko. Ikastaroran 63 eskabide baino gehiago badaude, zozketa egingo da **otsailaren 20an**, eta, onartuak izan zein ez, posta elektronikoz bakarrik jakinaraziko zaie interesdunei (helbide elektronikorik ematen ez dutenek, bulegoetara deitu, edo bertara hurbildu beharko dute). Zozketaren emaitzekin itxaron-zerrenda ere egingo da, tokirik lortu ez dutenekin. Tokia lortu dutenek, berriz, **otsailaren 22tik 23ra** arteko epea izango dute, lekuari berariaz uko egiteko. Uko egin ezean, ikastaroaren zenbatekoa kobratuko zaie, banku-helbideratzearen bidez; ordainagiria **martxoaren 1an** bidaliko da.

Izena-ematea elektronikoki izango da. Horretarako, www.basauri.net webgunean dagoen lineako inprimakia bete eta bidali behar da. Hori eginda, eginda egongo da aurreinskripzioa.

Ezin baduzue online egin, izena emateko inprimakia bete, eta Basauriko Udaleko HAZ-Erregistroan entregatu. Gogoratu aurretiazko hitzordua eskatu behar duzuela, hemen: <https://sede.basauri.eus/es/cita-previa> . Bestela, postaz bidali. Kontuan izan bidalitakoa izena emateko epea amaitu aurretik heldu behar dela, ze, bestela, eskabidea ez da onartuko. Hona hemen posta-helbidea:

Basauriko Udala (HAZ)
Kareaga Goikoa, 52 - 48970 Basauri

Prezioa

40 euro, Basaurin erroldatuta daudenentzat; eta 55 euro, erroldatuta ez daudenentzat.

Argibide gehiagorako, deitu telefono hauetara:

944 66 63 11 (Basauriko Udala) - 944 13 90 75 (Deustuko Unibertsitatea)

Ikastaroen egoitza

Basozelai Gizarte Etxea
Basozelai, 11 - 48970 Basauri